

# BERRIGARA

17 zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, apirilak 19



Bentlo Cantero (Bergarako dispositiboa irahiaketan 1. saria)



**Mankomunitatea:**  
Deba Garala  
gidatuz



**Hauteskundeak:**  
gero eta  
gertuago



**Aritzeta:**  
Bergarako  
tullpanak

200.000

**KADETT**

**PZTA. RAINOKO  
BEHERAPENA, INOLAKO BALDITZARIK GABE**

Hil amaiera arte. Bertaio bakoitzerako deskontua.



**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, 2/g. Tlnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Gipuzkoa)  
Erakusketak ARRASATEn:  
Loramendi, 2. Tlnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO LEINTZ BAILARA  
ETA GOIERRI GARAIRAKO

Kontzesionari. Ofizialak

**OPEL**  
Hobeak esperientziaz



**ETXEA**  
Gertatutako jangaiak  
eta erregimenekoak  
Zurradero 2, Tfnoa: 76 58 83



**GAZTEKY S. A.**  
BURDINDEGIA  
MINTEGI 1 Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

**BOLINTXO**  
Kirola egiteko  
behar den  
guztia  
Ibargarai 10, Tfnoa: 76 38 32  
BERGARA



**KORTA-ZAR**  
Txokolategia  
Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea  
Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

**MEMESA** **IRIMO** **SKF**  
Arrasate 79 42 22 Artxabaleta



**ASAGABASTER JANTZIDENDA**  
Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabala  
Gabiria 9, Tfnoa: 79 27 27 - 79 13 55 ARRASATE



**VID-ART**  
Bidriera artistikoak  
Belanbide z/g. BERGARA

BIDRIERAK - MURALAK - ISPILUAK  
KRISTAL BISELATUZKO ATEAK - etab.

AZOKA PLAZA  
Autobus geltokia  
Frontoirako bidea  
Ibargarai

|           |           |
|-----------|-----------|
| VID - ART |           |
| NINIKA    | LAGUN ARO |



**BIDRIERA ARTISTIKOEN  
1.ERAKUSKETA IRAUNKORRA**

**FABRIKAKO PREZIOAK DITUGU**

Azal eiguzu zure ideia  
VID-ARTEk egingo dizu.

Enkarguak eta abisuak:  
Tfnoa: 76 23 30 - 76 41 54  
Fax: 76 41 54 ( Bulego orduetan )  
9 - 14 eta 16 - 20

**Erakusketa:**  
Astelehenerik Ostiralera, 11 - 3 eta 17 - 20  
Larunbatetan 11 - 3

# BONOFOTOA

**BERRIGARA**

*Jardun Elkarte*

1991, apirilak 5



M. A. Elkorbereibar



## **Juan Etxabarri**

Zortzigarren BONOFOTOAk badu dagoeneko irabazlea. Zozketaren orduan Juan Etxabarrizako izan zen 10.000 pzta.ko saria.

Zuzen zebilen irabazlea, argazkiko baserria Basalgo auzoko Aranguretxo genuen.

Zorionak beraz, Juan!

Besteok badakizue; saiatu beheko galdera erantzuten!

***Zein Kaletan atera dugu argazki hau?***


Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfinoa: \_\_\_\_\_

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

**Errotalde Jauregia  
20.570 Bergara**

**Oharra:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo BONOFOTOarako gordeko litzateke, FOTOPOTEAN

# GIARTZU




## GIMNASIOA

BONI LASKURAIN 3, ETXABEA

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA



# DAGLAS BIDEO KLUBA

**PELIKULA BERRIENAK  
ESKURATZEKO AUKERA.  
DAGLASen zure zain gaude!**

Barrenkaie 42,

Tfnoa: 76 01 34

BERGARA

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

**Laguntzailea:** Bergarako Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezar

**Erredakzioa:**

Jon Andueza. Eneko Azkarate

**Maketazioa:**

Edume Arenaza. Jon Andueza

**Publizitatea eta harpidetak:**

Ignazio Ingoien. Edume Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezar, Josune Iñarra eta Xabier Aranburu, Aitziber Arstraga eta Ainhoa Bikuña

**Argazki laborategia:** A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikie eta marrazkiak** Josu Okina

eta Antonio Arrilaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

**Banaketaren ardura:**

Txantrangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/91

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



## 19 OSTIRALA

- Zinea: "Intrepididos Forajidos", 10.30etan
- Erakusketa: Igandera arte Kultur Etxean Ricardo Azkargortaren pintura erakusketa.
- Kontzertuak:
- Aretxabaletako Gaztetxean, *Me la come eta Heriotza*. Gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Puy (Barrenkalen) Gauez: Amezua (Arrasaten).

## 20 LARUNBATA

- Zinea: "Intrepididos Forajidos" 5etan, 7.30etan. 10.30etan, berriz, "3 hombres y una pequeña dama".
- Pilota partiduak: Frontonian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: Ansoategi-Etxenagusia / Tolosa III - Salbidea; Bengoetxea IV-Martinikorena / Ariznabarreta-Zezeaga; eta ihardunaldiarekin bukatzeko Ansola-Garaita/Irazola-Andueza VI.
- Kontzertuak:
- Bergarako Gaztetxean, 10.30etan, *Cuestión de cos-*

tumbres.

- Ofiati, Zubikua Kiroldegian, *Oskorri*, 10.30etan
- Elorrixoko Gaztetxean, 10etan *Flitter* taldea.
- Elgoibarreko Gaztetxean, *Balardi Balardi* eta *Javier Sun* taldeak, 10etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Guallar (San Anto) Gauez: Ruiz (Arrasaten).

## 21 IGANDEA

- Zinea: "Tre hombres y una pequeña dama", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.
- Dantzaldia: 6.30etan, plaza, *Korkoil*.
- Kontzertua:
- Elgoibarreko Gaztetxean, 9etan, *Moon Lizard*.
- Goardiako farmazia: Egunez: Guallar (San Anto) Gauez: Morales (Arrasaten).

## 22 ASTELEHENA

- Zinea: "Tres hombres y una pequeña dama", 7.30etan.
- Emakumearen Ihardunaldiak: Kultur Etxean, 4.30etan, *Emakumea eta buru osasunari* buruzko hitzaldia. Hizlaria, J.A. de Marco.
- Goardiako farmazia: Egunez: Estella (Matxiategi) Gauez: Azkoaga (Arrasaten).

## 23 ASTEARTEA

- Emakumearen Ihardu-

naldiak:

- 4etan, Kultur Etxean, "Educando a Rita" filmarean emanaldia.
- 6.30etan, UNEDen, *Etxeko langileak, eskubiderik gabeko langileak* gaiari buruzko hitzaldia, Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren eskutik.
- Goardiako farmazia: Egunez: Mozos (San Pedron) Gauez: Español (Arrasaten).

## 24 ASTEAZKENA

- Emakumearen Ihardunaldiak: 6.30etan, UNEDen, *Emakumea eta lana* gaiari buruzko hitzaldia.
- Goardiako farmazia: Egunez: Camacho (Bidekur) Gauez: Corcuera (Arrasaten)

## 25 OSTEGUNA

- Emakumearen Ihardunaldiak:
- 6.30etan, UNEDen, *Koedukazioa, ikasketa eta lan arloko orientabideak* gaiari buruzko hitzaldia
- Antzerkia: 8.30etan, Mariaren Lagundian, *Neskarriadak* antzerki taldeak *El Angel caldo* eskainiko du.
- Goardiako farmazia: Egunez: Puy (Barrenk) Gauez: Irizar (Arrasaten)



# KIZKUR



Ileapaindegia  
Solariuma

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

# Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan.  
Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

# ANDIZI

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

**Errotuloak, igeltseritza  
eta pintura lanak.**

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

# Kiñu

**ARGAZKINDENDA**

**ARGAZKILARIAK**

**Martxotik aurrera  
Barrenkale 35ean**

Tfnoa: 76 58 05  
BERGARA

## Kultura eta trafiko seinaleak:



Berrigarako lagunok:

Aurrez ere irakurri izan dut gutunen ataltxo honetan, gure herriko seinalizazioari buruzko zerbait, eta nire karta honekin ez nuke nahi berriz tema berdina luzatzea, baina oraingoz esan beharra dut.

Bariante berria zabaldu zenetik hainbat gauza aldatu da, baina aldaketa eraginkorrena, trafikoa desbideratzeaz gain, aurrez zeuden bide batzuren sarrera aldatu dela izan da.

Horietako bide bat Ozaetatik abiatuz Agarreko Garaixa bisitatzeko aukera ematen ziguna da. Gaur egun oinezkoentzat bakarrik balio du, baina lehengo turismo seinaleak han jarraitzen dute, bide aldaketaren berri ez direlarik enteratu.

Oraingo honetan uste dut erantzukizuna Udaletxearena dela eta bidekurutze berrira seinale horiek eramatea denbora gutxiko lana dela. Dauzkagun kultura aberastasunak, apalenak izanik ere, guztiek ezagutzeko moduan ipini behar ditugu, bestela lau katuk jakingo dugu zeren jabe garen eta horietatik bik bakarrik nondik joaten den bertara.

J.L. Iñarra Goikoetxea



**• ERITETXEAK**

Osasun etxea ..... 76 10 82  
Larrialdiak ..... 76 12 94  
Arrasateko ospitalea ..... 79 53 00

**• GURUTZE GORRIA**

Bergara ..... 76 55 76  
**• DYA**

Antzuola ..... 76 62 91

**• ANBULANTZIAK**

Bergaran ..... 76 13 59  
Gipuzkoako anbulan. .... 45 87 44

**• SUHILZAILAK**

Zubillagan ..... 78 28 00

**• POLIZIA**

Udaltzaingoa ..... 76 14 69  
Ertzaintza ..... 76 53 40

**• GARRAIOAK**

P.E.S.A. .... 76 16 46  
Taxiak ..... 76 19 50

**• HIRUGARREN ADINA**

Mizpirualde ..... 76 13 68  
Aitonak ..... 76 21 40

**• BESTELAKO ZERBITZUAK**

Udaletxea ..... 76 39 42  
Epaitegia ..... 76 14 72  
Kiroldegia ..... 76 56 41  
Igerilekuak ..... 76 20 51  
Kultur Etxea ..... 76 44 46  
IMI ..... 76 55 49

## Tiiira ba!

## Josu Okina



## ❑ 3.300 bergarar Udalarekin euskaraz

Dagoeneko 3.300 bergarar agertu dira Udalarekin harremanak euskaraz izatearen alde, Euskara Zerbitzuak jakitera eman duenez.

Gogoratu *Udalarekin harremanak euskaraz* kanpaina biztanleen erroldarekin batera burutzen ari dela eta apirila bukaerara arte jarraituko du. Ordurako beste berrehun batek ere izena ematea espero da.

## ❑ Kultur arduradun lanposturako probak

Laister ezagutuko da Bergarako Udalan kultur jestore lanak beteko duen pertsonaren izena. Momentuz bost lagun ari dira lanpostua eskuratzeko lehian: Erika Mendibil bergararra, Jone Larrafiaga antzuolarra, bi arrasatear eta bilbotar bat, hain zuzen ere.

## ❑ Txintxerriña Elkartearen oharra.

Astialdiko ekintzak antolatzeko asmoz sortu zen *Txintxerriña* Elkartea; ludoteka zein asteburutako ekintzetan izena eman nahi dutenek, gogoratu astebeteko epea izango dutela oraindik. Horretarako, jo Kultur Etxera, arratsaldeko 4.30etatik 6.30etara bitartean.

## ❑ Emakumearen II. Ihardunaldiak

Astelehenetik ostiralera luzatuko dira Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak antolatutako *Emakumearen II. Ihardunaldiak*. Hitzaldiak izango dira egunero, Kultur Etxean eta UNEDeko aretoan.



## ✓ Ekintza ugari Mizpirualden

Mizpirualden bizi diren jubilatuen partehartzea bultzatu eta elkarren arteko harremanak sendotu asmoz, egoitzako arduradunek hainbat iharduera antolatuko dituzte.

Jubilatuentzako omenaldiak, kanpora irteerak, bideo proiektzioak, hitzaldiak eta herriko talde kulturalen emanaldiak izango dira egitarauaren ardatz nagusiak. Horiez gain, Yoga, erreabilitazio edota eskulan ikastaroak ere prestatu nahi dituzte.

Bergara, Elgeta eta Antzuolako jubilatuen beharrei erantzuteko sortutako Mizpirualde egoitzak 120 lagunentzako tokia du, gaur egun beteta ez dagoen arren. Emakumeak gehiago dira gizonak baino; bertan bizi direnen batzuek besteko adina 80 urtekoa da.

## Diapositiba Lehiaketaren irabazleak

Atzo banatu ziren Bergarako Diapositiba lehiaketako sariak. Bergarako 32 argazkilarik hartu dute parte (bakoitzak 6 diapositibaz).

Talde onenaren saria Benito Canterok eskuratu du (besteak beste portadan aurkezten dizuegun lanarekin). **Iñaki Eguren** izan dugu 2., eta 3. **Armando Gallastegi**.

Diapositiba onenaren saria Alberto Egurenentzat izan da; mendiko diapositiba onenaren saria **Juan Carlos Barrenarentzat**; eta *Mendia Bizirik* saria, berriz, **Agustin Gurrutxagarentzat**. Aldameneko argazkia

**Fernando Markinarena** da, eta Pol-Pol Taldeak datorren urteko egutegirako aukeratu du.



# HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57  
BERGARA

# ERREKi

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI-JANA  
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

# iRUDI

Erlojutegia  
Bitxitegia

San Pedro 11,  
Tfmoa: 76 51 65



## ✓ Aritzeta, aurrera begira

Aste Santuan Holandatik zehar eginiko bidaiarekin oso gustora geratu dira Aritzeta abesbatzako lagunak. Bost egun eman zituzten han (martxoaren 27tik apirilaren 1era) Amsterdam-eko Udalak gonbidatuta. Madurodam, Amsterdam, Vollendam eta Heiloo bisitatu zituzten, eta bi kontzertu eskeini: Amsterdam eta bere garaian euskaldunek sortutako Vollendam-en. Heiloo herrian Frith eta Hetty Gronert senar-emazteei omenaldi beroa eskeini zieten. Bergaran lagun ugari dituen Gronert familiak antolatu du Aritzetak Holandatik zehar eginiko bidaia. Aberri Eguna zela eta festa haundia egin zuten familia honen etxean. Eguneroko lanera bueltatuz, abesbatzak proiektu berriak prestatzeari gogor ekin dio. Dagoeneko kontzertu batzuk zehaztu ditu, ekainean Zarautzen eta uztailean Tuteran emango dituenak. Kilometroak 91 dela eta irailean egingo den Hamabos'aldi Kulturalean ere parte hartuko du. Bestalde, Holandako Noordhlland Kamerkoor abesbatza Bergarara ekartzeko asmotan daude. Izaskun Labaienek zuzentzen duen abesbatza 48 ahotsez osaturik dago, presidentea Felipe Uriarte delarik.

## □ Arte Ihardunaldiak

Aurrera darraite XX. mendeko arte eta artista euskaldunei buruz UNEDeko aretoan burutzen ari diren ihardunaldiak.

Larunbat honetan, hilak 20, goizeko 11.30etan, Pilar Muñoa irakasleak Oteizaren obra aztertuko du.

Hurrengo larunbatean, hilak 27, ihardunaldiei amiera emateko EHUko irakasle den Pedro Manterolak Remigio Mendibururi buruz jardungo du.

## □ Zaborteia itxita

Udalak San Blas auzoko zaborteia ixtea erabaki du, jarrita dauden kontenedoreak errespetatzen ez direlako.

Hori dela eta, aurrerantzean San Juan eta Uberako zaborteiak erabili ahal izango dira bakarrik.

## □ Argazki lehiaketa

Maiatzaren 6ra arte zabalik aurkituko duzue, Pol-Pol Argazki Taldeak antolatu duen VII. Bergara Hiria Lehiaketara lanak aurkezteko epea. Gogoratu argazkiak Udaleko Kultura Zerbitzura eraman behar direla.

## Nazioarteko txontxongiloak Bergaran



Taun-Taun kolektiboak eta Udaleko Kultura Batzordeak Helduentzako Txontxongiloen Nazioarteko I. Erakustaldia antolatu dute apirilaren 25etik 28ra.

Madril, Galizia, Italia, Kataluña, Aragoi eta Euskal Herritik etorritako hamar taldek beste hainbeste lan antzeztuko dituzte Novedades aretoan, Gaztetxean eta San Martin Plazan (kaleko ikuskizunak).

Novedades aretoan hiru emanaldi egingo dira, 8.30etan.

Gaztetxean beste hiru, gauerdiko 12etan.

Kaleko emanaldiak, azkenik, arratsaldeko 7ak inguruan izango dira.

Jaialdiak 2 milioiko aurrekontua dauka. 1.000 pzta.ko bonuak daude salgai, antzezpene guztiak ikusi nahi dituztenentzat.

## Nahikari

RICARDO A.  
ELIZALDEren  
PINTURA  
ERAKUSKETA

Aurrera jarraituko duen bidaia baten arrasto eta apunteak direla esango nuke...

Mahasterreka 20, Tfnoa: 76 57 71

# ELKAR

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16

BERGARA













Fotokopiak  
Enkuadernazioa  
Jendearentzako faxa  
Plastifikazioa  
Planoen kopiak.

## Beheko Taberna

Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak  
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74





|    |    |    |    |    |   |
|---|---|---|---|---|--|
| <b>Zerrendaburua</b><br><br><b>Juan Mari Garitano</b><br>48 urte<br>Langile autonomoa | <b>Zerrendaburua</b><br><br><b>Bitoriano Gallastegi</b><br>50 urte<br>Biltokiko gerentea | <b>Zerrendaburua</b><br><br><b>Albaro Esparza</b><br>38 urte<br>Arrasateko Udako administraria | <b>Zerrendaburua</b><br><br><b>Jose Luis Elkoro</b><br>56 urte<br>Industrigizona | <b>Zerrendaburua</b><br><br><b>Fco. Javier Zendoia</b><br>46 urte<br>Torunsako langilea | <b>Zerrendaburua</b><br><br><b>Jose Ramon Sebal</b><br>40 urte<br>Tavesako langilea |
| <b>Zinegotzi-gaiak</b>  | <b>Zinegotzi-gaiak</b>  | <b>Zinegotzi-gaiak</b>  | <b>Zinegotzi-gaiak</b>  | <b>Zinegotzi-gaiak</b>  | <b>Zinegotzi-gaiak</b>   |
| Kontxi Irizar   | F. Javier Gabillondo  | Antonio Herzog  | AnaJesus Narbalza   | Marino Millán   | Markos Gabillondo  |
| Juanito Garitano  | Luis Abajo  | Dolores Unamuno   | Altor Aginagalde  | Enrique Corcuera  | Ramon Romero   |
| Rafa Agiriano   | Xabier Gallastegi   | Agustin Orgaz   | Jesus M. Garitano   | Alfonso Zafra   | Mila Retes   |
| Jose A. Etxebarria  | Jose Mari Ibabe   | Jose Luis Eginu   | F. Jabler Latorre   | Pedro Puche   | Alex Gardoki   |
| Jesus Elorza  | Andoni Larrañaga  | Andres Lopez  | Jose Luis Irazabal  | Begoña Urbistondo   | Atilano Garcia   |
| Juan C. Berraondo   | Itziar Zabala   | Felix Maiztegi  | G. Muruamendiaraz   | José Tejada   | J. Balzategi "Peke"  |
| Bittor Irigolen   | Jose R. Berezibar   | Sabin Urzelai   | Daniel Kortabarría  | Rosalía Garrido   | Iñaki Ormazabal  |
| Alberto Bolibar   | Mikel Lete  | Juan R. Unamuno   | Felix Askasibar   | M. Carmen Otero   | Jacinto Pérez  |
| Josu Oregi  | Carlos Gutierrez  | Patxi Barrutia  | Jose M. Arenaza   | Juan Pineda   | Fernando Lasa  |

## DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

### INGURUGIROARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

#### HONDAKIN TOXIKOAK ETA ARRISKUTSUAK

- a) E.J.ko hondakin toxiko eta arriskutsuen plana.
- b) Hidronor
- d) Green Peace

#### HIZLARIAK:

- \* Juan Ignacio Escala ( Industri Injinerua, Ingurugiroaren kalitate zuzendaria )
- \* Jose M. Diego ( Industri injinerua. Hidronor )
- \* Juan Lopez de Uralde ( Green Peace )

NON: Arrasateko Eskola Politeknikoan NOIZ: 1991-4 -25 ORDUA: Arratsaldeko 7etan  
INTERESATU GUZTIAK GONBIDATUAK ZAUDETE

# Deba Garaiko Mankomunitatea

## Eskualdearen taupadak gidatzen

Deba Garaiko Mankomunitateak Bergara, Antzuola, Elgeta, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako herriak batzen ditu bere ardurapean. Besteak beste, 1976an martxan jarritako proiektu honek, Eskualde mallako zabor bilketa eta erreketeta, Oñatiko abere-hiltegia, edota gazte langabetuentzako ikasketa ez aratuak (tailer okupazionalak, adibidez) kontrolatzen ditu gaur egun. Sortu berria du Ingurugiro Departamentua ere.

### Lehenengo pausoak

Deba Garaiko Mankomunitatea sortzearen ideia ez da joan den osteguneko.

1976an izen horrekin martxan jarritako proiektuak baditu bere aurretikoak.

1960. urtea izango zen. Orduan Oñatiko Alkate genuen Reyes Korkostegik

bultzatuta, Urretxu, Legazpia, Zumarraga eta Deba Garaiko zortzi Udalek *Macover* (Mancomunidad Comarca Vergara) sortu zuten. Elkarre haren helburua, eskualde mailan haragi, arrain eta barazkien komertzializazio amankomuna egitea zen.

Proiektu garestia, ordea, eta ez zuen sekula aparteko garrantziarik lortu.

1976. urtea. Egun haietan *Mancomunidad Municipal de Servicios del Valle Leniz* delakoan batu ziren Bergara, Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Aramaixoko Udalak, AKEIko erretegiaren esplotazio bateratua egin asmoz. Hauxe izan zen, zalantza barik, gerora Deba garaiko Mankomunitatea bihurtu zenaren hasia.

### Arazo berdintsuak


70. hamarkadaren hasieran ere, Deba Garaiko Udalek Eskualde mailan egin beharreko ikerketa eta proiektu batzuk bultzatu zituzten.

1973an, adibidez, Eskualdeko herrien ikerketa urbanistikoari ekin zitzaion.

Hiru urte geroago, Man-



Maite barrena eta Fran Lete, Mankomunitatea sortu zenetik dihardute bertan lanean



komunitatearen sorreran aparteko inportantzia izan zuen gaia agertu zen: Maltzaga-Armiñon autopista, hain zuzen.

Proiektu harek izugarrizko kaltea suposa zezakeen gure bailararako. Besteak beste, herri gehienak bitan erditzen zituen.

Zortzi Udalek inoiz ez bezala bat egin, eta arazo hura eta antzeko beste batzuk modu bateratuan konpontzeko erakunde bat sortzea erabaki zuten: *Deba Garaiko Mankomunitatea*.

### Abixadan

1976an bertan sortu eta egituratu zen elkarte. Hasierako helburua, Eskualde mailako zaborren bilketa eta erreketaz arduratzea zen.

77an, Gabineteko Teknikoa abiarazi zuten.

Lehenengo gerentea Gilen Azkoaga (G.B.) izan genuen. Eta hasiera-hasierako lantalde haretan egon ziren Maite Barrena bergararra, eta Fran Lete, aspalditik gure

herrian bizi den plaentxiarra.

Gaur egun Mankomunitateko gerentea den German Berezibar eskoriatzarra ere orduan heldu zen lanera.

✓ 1976tik, hasiera-hasierako lantaldean izan genituen Maite Barrena bergararra eta Fran Lete, aspalditik gure herrian bizi den plaentxiarra.

✓ Gaur egun, hamabi bergararrek dihardute bertan lanean, eta gure herriko hainbat gazte dabil Mankomunitatearen tailer okupazionalan

### Zertan dihardute ba?

Lehenengo urratsak zabor arloan eman baziren, denborekin ardurak gehituz joan dira.

Argi utzi beharra dago Udalek nahi dituzten Zerbitzuak erabiltzen dituztela bakarrik (eta ez denak derrigorrez). Gauzak horrela, tasa zehatz bat ordaintzen dute

M U G I C A

BURDINDEGIA

Bidekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA





Joan den astean egindako Ingurugiroari Buruzko Ihardunaldien aurkezpena

onartutako zerbitzu bakoitzagatik.

Hor dago martxan AKEIko erretegia (1979an 200 milioi pzta. kostatu izan zena, eta gaur egun Deba Arroko herri guztiei zerbitzua eskaintzen diena).

Urte bukaerarako Arrasateko Epelen egiten ari diren erretegia zabaldu nahiko luke.

Hor dago 1983ko martxoaren 7an Oñatin inauguratutako abere-hiltegia ere. Gai eztabaidatsua bere garian, orduan herri bakoitzak matadero propioa bait zeukan. Kostata, baina azkenean guztiak itxi eta Oñatikoan zentratu zuten Eskualdeari eman beharreko zerbitzua.

Urte askotan egon da funtzionamentuan Hirigintza departamentua. Udalen aholkulari moduan aritu da, auzo eta alde zaharrei buruzko ikerketak egiten.

1987an, Mankomunitateak SURADESA enpresa sortu eta bere esku utzi zuen arlo hori.

Gaur egun, berriz, aurki

Deba garian sortuko diren garraio bideen (Abixada Haundiko Trena, saihe bide berriak, etab.) eragina aztertzeko ari dira buru-belarri.

**Gazteak eta lana**

1987an, batez ere gazte langabetuei zuzendutako saila sortu zuten. Arautu gabeko ikasketen arloa jorratu dute batipat.

Gaur egun hiru programa lantzen dituzte.

Batetik, Arrasaten kokatzen den Lanbide Eskola. Hiru urteko iraupenez, arotzeria, igeltsaritza, iturgintza, elektrogintza eta loragintzari buruzko kurtsoak ematen dituzte. Bailarako 64 gazte dihardu bertan, ikasteagatik soldatatzeko bat kobratzen dutelarik.

Bigarren programa, Lanbide Hastapena delakoa dugu. Oñatin sukaldaritza tailerra, Arrasaten joskintza, eta Bergaran arotzeria eta igeltsaritza tailerrak zabaldu dituzte. 60 gazte matrikulatu dira.

Eta hirugarren programa Heziketa, okupazionalako ikastaroek osatzen dute. Ikastaro hauek iraupen laburrekoak izan ohi dira, arlo zehatz batzuen inguruan antolatzen direlarik.

**Ingurugiroa**

Eskualdearen garapen industrialak zeharo hondatu du gure ingurugiroa. Deba erreka lekuko, adibidez.

Egoera horretaz jabetuta, Mankomunitateak sortu berri du Ingurugiro Departamentua.

Sail honek lanean dihar-

du dagoeneko, eta atzo bertan ekin zien Arrasaten Ingurugiroari buruzko ihardunaldiei.

Ihardunaldi hauek maiztaren 16ra arte luzatuko dira, Euskal Herri mailako espezialista ugari bilduko direlarik ostegunero, arratsaldeko 7etan, Arrasateko Eskola Politeknikako aretoan.

Ihardunaldiak Mondragoen izango diren arren, bailara guztiko enpresari, talde ekologista eta partikularrei zabalitzen zaie bertara joateko deia; azken finean guztion lana bait da Eskualde garbia berreskuratzea.

**Jakin dezazun**

- ☐ Deba Garaiko Mankomunitateak 510 milioi pzta.ko aurrekontua dauka 1991. urterako.
- ☐ 65 langile ditu (horietako 12 bergararrak), eta baita soldata kobratzen duten bailarako 60 ikasle ere. Guztira, beraz, 125 pertsona ditu nominan.
- ☐ Gillen Azkoaga (G.B.) izan genuen Mankomunitateko lehenengo gerentea. 1985eko maiatzetik, berriz, German Berezibar eskoriatzarrak betetzen du lan hori.
- ☐ Herri bakoitzeko biztanleen arabera, Udalek ordezkari kopuru bat edukitzen dute Mankomunitatearen Gobernu Batzordean. Gauzak horrela, Arrasateko lau ordezkari ditu, Bergara eta Oñatik hiru, Aretxabaletak bi, eta gainontzeko lau herriek bana. Guztira Udaletako hamasei ordezkari osatzen dute Batzorde hori.
- ☐ Lau urtetik behin (beti ere hauteskunde munizipalen ondoren) Udaletako hamasei ordezkari hauen artean Mankomunitateko lehendakaria aukeratzeko dute. Lehendakariak, Alkate batek Udalean daukan antzeko kargua betetzen du. 1987ko maiatzaren 30an Arrasateko Alkatea den Xabier Zubizarreta hautatu zuten postu horretarako.

**KONDE**  
**PANADEROKUA**  
 Burdiñate 1  
**BERGARA**

**TOKI-EDER**  
**Taberna**  
**Pintxoak eta**  
**eguneko bazkariak**  
 Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA

**Merzeria - Lenzeria**  
 D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69  
 BERGARA

**Euskalduna  
Taberna**

**OSINTXU**

**ONENA**

**TINDATEGIA**

**Barrenkale 29 BERGARA**

**IRUBIDE**

**Taberna**

Bazkariak, gosariak,  
afariak, etab.

Urteaga 9 Tfnoa: 76 25 67



**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**Udal-hauteskundeetan zer baloratzen  
duzu gehien, partidua ala kandidatua?**



**Elena Fernandez**  
42 urte

Nik alderdia hartzen dut kontutan,  
zer programa aurkezten duten.



**Pedro Egaña**  
51 urte

Pertsonak, herri baten hori ikusi  
behar da. Ez ditut siglak begiratzen;  
segun eta ze jende dagoen, horri  
ematen diot botua.



**Jon Agirrezabalaga**  
23 urte

Ez bata ez bestea. Nik programak  
konparatzen ditut, eta nire ideiekin bat  
datorrena aukeratu.



**Mila Agirrezabal**  
39 urte.

Apur bat danetik. Jendea bai,  
baina baita zer esaten duten ere.

**Gallastegui  
Jostundegia**

Mahoizko lanerako jantziak


San Pedro 17, Tfnoa: 76 10 85 BERGARA

**LAZKANO**

**oinetakoak**

**BARRENKALE 15  
BERGARA Tfnoa: 76 25 03**

**SANTOS - IRRATI-TB**



TB- Soinua - Bideoa  
Antena Instalazioak:  
Satelite bidez eta lurretik  
Sukalderako altzariak  
Argiztapenak

Mahasterreka 2,

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA



✓ **Zorionak, Anizeta!**

Duela hiru urte ateratako argazki honetan ikusten duzuen emakumeak, **Anizeta Agirre Elkoroiturbek, 103 urte bete zituen asteazkenean.**

Anizeta 1888ko apirilaren 17an jaio zen Osintxuko Laudatz baserrian. Deogracias eta Manuelen alaba. Bi anai eta bost ahizpa izan zituen (gaur egun 91 urte dituen Mercedes da bizi den bakarra).

Bere lehengusu Luis Zangiturekin ezkondu zen. Luis hil, eta bigarren aldiz ezkontzean Felipe Garmendia (G.B) hartu zuen senartzat.


Bikoteak lau seme eta alaba bat izan zituen. Hauen artean zazpi biloba eman dizkiote Anizetari.

Goiko argazkian azaltzen diren neska-mutikoak, gainera, Anizetaren hiru birlobak ditugu: Eskuman Gorka, erdian Xantal eta ezkerrean Erika.

Familikoek igandean etxean ospatuko dute Anizetaren urtebetetzea. Guk, gure aldetik, aukera aprobe txatu nahi dugu Osintxuar honi zorionik beroenak opatzako; azken finean, 103 urte ez bait dira egunero betetzen!

**Zertan dihardute ba?**

**BALENTIN GABILONDO**



27 urteko elosuarrak, bost urte daramatza EHNEEn lanean, gaur egun Gipuzkoako Idazkari postua betetzen duelarik. Asteartean, Arrasaten antolatut dituzten Nekazal Ihardunaldietan Deba Garaiko nekazaritzaren egoerari buruzko hitzaldia eman zuen.

**XAMATZ**



Bergarako Dantza Taldea, maiatzean hasiko den **Gipuzkoako Eskolarteko Dantza Jaialdira** joateko asmotan dabil, duela 30 urte Bergaran asmatutako **Berriotxoaren Dantza** eskaintzeko asmoz.

✓ **Moda desfilea**

Jo ta ke ari dira Institutuko 2. BBBko ikasleak, igande honetan, hilak 21, Mariaren Lagundiko aretoan antolatuko duten udaberri-uda moda desfilea prestatzen.

Ikas-bidaia egiteko xoxak batu nahi dituztela eta, hor aterako dira pasarelara arratsaldeko 7etan.

Ez gero herritar ausart hauen estilo paregabea bizi-bizian ezagutzeko aukera galdu.

Total, 300 pzta. besterik ez dira!



**ORTZI**

**Erretegia**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

**A. ZANGITU**

Paper pintatuak-pinturak

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



## Hau dok barreguria

Bergaran, historiak dioskunez, tradiziozko gaiak praktikatu ditugu betidanik, nahiz eta orain zerbaitzuk ahaztuta badauzkagu ere.

Ohitura zaharrenetarikoa bat, Santiago biharamon goizean goiz ospatzen zen letania, San Pedro eleizatik Santa Anako kapilara.

Hona hemen duela hirurogei urte gutxi gora behera jazotako gertakizuna.

Atera zen letania parrokiatik Santa Anaruntz, kalez-kale.

Aurrengo mezamutila, gurutzirudia goimailara jasorik.

Jarraian On Bizente kantulari, ezkerretik. On Domingo erantzule eskuatik.

Ondoren fedez beteriko emakume eta gizonezkoak haiek kantatzen zutenari erantzunez.

Kantularia:

- Santa Anastasia...

Jarraitzailearen erantzuna:

- Ora pro nobis...
- Santa Madalena...
- Ora pro nobis...



- Santa Jenobeba...
- Ora pro nobis...
- Santa... (ahaztu)...

Santa Dana dala...

- Tranlaranlarala!

Azken erantzuna On Domingok eman zuela esan ditate. Letanian zihozazen jarraitzaileak ez ziren konturatu ere egin, alegia.

Gertakizun hau kontatu didanak ziurtasun guztiarekin ematen didala esan dit. Ni han ez nintzenez erositako salneurrian eskaintzen dizuet.

Antonio Urzelai

## Parranderoaren kanta:

Jan-edanaren inguruan hamaika bertso sortu da. Ondoren dakarguna Bizkaia aldean eta Deba-Harroko herri askotan jaso izan da aldaera desberdinetan. Mutrikun entzun zuen R. M. Azkuek eta, ahozko tradizioaren frutua denez, ez dago noizkoa den esaterik; XIX. mendekoa baino lehenagokoa, apika. Dударik ez dagoena da hemen agiri den protagonista eskualdeko parranderorik formalenetakoa eta kanpolarrosarik handienetakoa genuela:

Bart arratsean beranduan  
etxea nekez jo genduan;  
andik aurrera su onduan  
panparrerria ere bagenduan.  
Esaten diot andreari:

- Jaiki zaite edo jaiki adi;  
naiz izan bedi gaberdia,  
andrea, nun da aparia?  
Santa Kurtzetan Legazpi'n  
dantzatu nintzan berakin;  
Pazkoetan Bergara'n,  
altza dringilin drangala dan.  
San Tomasetan Mondrague'n,  
alkar ikusi genduen;  
Pazkoetan Bergara'n,  
altza dringilin drangala dan.  
Elgoibar'ko Azkarate'n,  
neskatx-mutillak zesto baten;  
atso-agureak beste baten,



Jerardo Elortza

# YAZKI

UME

Irizar 3

Tfnoa: 76 16 54

GAZTE

Ibargarai 8

Tfnoa: 76 54 73



# ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

# Oilagorra Taberna

Barrenkale 21 BERGARA

# LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

## ❑ Euskadiko Kirol-eskalada Txapelketa

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Bergarako Udalak bultzatuta, Pentekostes jaietan jokatu da Euskadiko II Kirol-eskalada Txapelketa. Iaz ere Bergaran antolatzen eta lehenengo edizio harek lortutako arrakasta ikusita, Euskadiko Mendi Federazioak aurten ere txapelketa gure herrian jokatu dadila erabaki du.

## ❑ Martin Egaña Jerezeko podiumean

Iaz Pablo Irizar AX Kopa modalitatean Espainiako txapeliduna izan bagenuen, aurten Pabloren jarraitzaileak gogor hasi dira txapelketako lehenengo probetan. Martin Egaña bergararrak, adibidez, bigarren postua eskuratu zuen duela gutxi Jerezeko zirkuitoan, eta Jaraman ere bostgarren postua lortu zuen.

Une honetan, Martin AX Kopa modalitean sailkapen orokorreko 2. postuan dugu.

## ❑ Antzuolarrak ederto atletismoan

Ibon Iturbe eta Amaia Zabaleta antzuolarrak erraz nagusitu ziren Pau-n (Frantzia) jokaturako atletismo probetan. Ibonek pisu jaurtiketari 13,31 m.ko markarekin txapela lortu bazuen, Amaia 100 m.ko lasterketan 13,2 segunduko markarekin nagusitu zen.

Antzuolarrak Gipuzkoako kadete mailako selekzioarekin joan ziren Pau-ra.

## ❑ 12 orduko Futbito Txapelketa

Labegarietako jaien barruan, larunbat goizeko 9etan hasiko da 12 orduko Futbito Txapelketa.



## ✓ Pala Txapelketa bukatuta

Udal Kirol Zerbitzuaren ardurapean, urtarilaren 20an bost bikotek ekin zioten *I Binakako Pala Txapelketa* jokatzeari.

Liga sistema erabiliz, denek denek kontra bi aldiz aritu eta gero, Juan Luis Guezala-Diego Txopitea eta Jesus M. Barrutia- Carlos Lizarralde bikoteak heldu ziren joan den igande eguerdian Bergarakofrontoian jokaturako finalera.

Partidua polita izan zen arren, txapelketa guztian zehar jaun eta jabe izan ditugun Guezala-Txopitea elorrixarrek (gogoratu txapelketako neurketa guztiak irabazi dituztela) eskuratu zuten garaipena, 35-16ko emaitzaz.

Hor ikusten dituzue argazkian, irriparretsu, txapela buruan eta garaikurra eskuan!

## Futbolaren etorkizunari buruz

Berrogei lagun inguru bildu ziren, Jardun Elkarteak Futbolaren etorkizunari buruz antolatutako hitzaldian.

Moderatzaile lanetan ETBko Asier Aranguren izan genuen. Hizlari, berriz, Gipuzkoako Federazioko Juan Luis Larrea eta Angel Aldalur, Errealeko Iñaki Otegi gerentea eta Xabier Bengoetxea, eta Athletic-eko Jose Angel Iribar izan genituen.

Azpimarragarria Otegi eta Iribarrek atzeritarrei buruz izandako eztabaida. Ikusleek galdera ugari luzatu zituzten, eta bukaeran ez zen adar soinurik falta izan; Iribarren ustez Mendoza Lasaren atzetik dabil, baina baliteke aurrez Athletic-ek fitxatzea ere...



IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNEKO MENUA  
AURREZ ESKATUTAKO  
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Rairabal  
Gozotegia

Artekale 9, Tfnoa: 76 11 83

Bidekurutzeta 20 / 22 Tfnoa: 76 12 19



**A**urreko batetan "Escuela del Hogar" reko jostunak atera genituen. Oraingoan koziña-ikasleak datoz. 65 urte inguru ditu erretratuak eta hori dela eta ez dugu guztien izenik jasotzerik lortu.

Ezagutzen ditugunak, okerrik ez bada, hauek dira **ezkerretik eskumara**:

1.a: ezezaguna; 2.a: ezezaguna; 3.a: Margarita Sasieta; 4.a: Cecilia Urtaza; 5.a: Teodosia Manso; 6.a: Concepción Roman; 7.a: Dolores Retegi; makurtuta dagoena: Maria Guisasaola; eta zutik dagoena, maisua, Francisco Lasa.

Orduan ere plater goxoak prestatzen bazekitela ikusteko hona hemen errezeta bat Cecilia Urtazaren koadernotik, orduko koadernotik, hartutakoa:

#### **Bildots iztar betea**

Okela eta urdai apur bat pikatu. Pikatu horri arraultza bat, ogi birrindua, perexila eta Jerez apur bat bota eta denarekin masa bat egin. Bildots iztarrari hezurra kendu eta masarekin bete eta urdei tajada batzurekin lotu. Gero labean jarri azenario, kipula, berakatz ale eta koipe apur batekin.

Hauxe da dena. On ein!

*Estepan Plazaola*

*Berriemailea: Cecilia Urtaza*

*Argazkia: Txaro Zabala*

## **AUTOPULLMANS ARABA**

### **Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

## **ETXAGI**

Afariak  
Bazkariak  
Gosariak  
Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua

### **JATETXEA**

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12





**egizabal oinetakoak**  
**boltsak**

*Elisabete*

**gizonezkoen jantzi denda**

Bidekurutzeta 13

Tfnoa: 76 12 28

BERGARA

**TRUKE HAU GUSTOKO IZANGO DUZU:**

14.000 pzta bakarrik ordainduta...  
orain dituzun lenteen ordez  
BAUSCH & LOMB lente bigunak  
jarriko dizkizugu.



Erosoago egoteko,  
hobeto ikusteko.  
Ez galdu aukera eder hau.  
Apirilaren 30era arte.



Opticas Asociadas-en eskaintza da.

P. MANSO Optika

**OPTIKOA, OPTOMETRISTA**

**Irizar Ibilbidea, 2 Tfnoa: 76 27 86**